

Agian entzun edo irakurriko zeniguten honezkero, 2018an Durangoko Azokak beka bat eman digula euskaraz rol joko bat sortzeko. Hori ospatzeko, urtea Bilbo Hiria Irratiko estudioetan rolera jolasten amaitu genuen, zer eta [Kult: Divinity Lost](#) joko ilunarekin.

Goizalde Landabaso *Donna Hartfeld* detektibe konspiranoikoa izan da, Ana Morales *Robert Dickinson* abokatu lodikote eta arduratsua, Eneko Olazabal *Richard Hawkes* kazetaria, Galder Perez *Anna Forbes* MoMo Arte Galeria entzutetsuko zuzendaria eta Ane Zabala berriz *Chris Grenwald* BANG modelo agentziako zuzendariaren larruan ikusi dugu. Master (edo Maizter) lanetan berriz ni neu aritu naiz, Txabi Landabidea.



Argazkia: Goizalde Landabaso

Arratsalde bat hartu dugu “Mito baten heriotza” eszenarioa jokatzeko (Kult 3. edizioaren Neko eta Florenten frantseseko *Mort d'un Mythe* abentura oinarri izan dugu) helburu birekin: ondo pasatzea eta rol jokoek irratian eman dezaketenaren inguruan esperimientatzea. Lehen saiakera bat izan denez zenbait arazo izan ditugu audioekin, baina hemen duzue Mito baten heriotza, bi audiotan entzungai.

Esango diguzue ea zentzurik izan duen gure esperimientuak! Utzi mesedez zuen iritziak eta iruzkinak hemen bertan, iruzkinetan.

1. [Mito Baten Heriotza Lehen Zatia MP3](#)
2. [Mito Baten Heriotza Bigarren Zatia](#)

PS: Bonus track bezala, hemen dituzue KDL jokorako euskaratutako pertsonaien fitxak:

• Izena

• Arketipoa

• Lanbidea



Aukeratu arketipoaren aukeren arteko edo asmatu bat zuek zeuk.


• Itxura

Aukeratu zure arketipotik edo asmatu zuek zeuk pertsonaiaren ezaugarri batzuk.

• Atributuak

Banatu +2, +1, eta +0 atributu pasiboen artean (Sendotasuna, Erreflexuak eta Gogoa)

Banatu +3, +2, +1, +1, +0, -1, eta -2 beste zazpi atributuen artean: (Karisma, hoztasuna, Intuizioa, Pertzepzioa, Arrazoimena, Arima, Biolentzia.)



• Sekretu iluna

Aukeratu sekretu ilun bat edo gehiago

• Desabantailak

Aukeratu bi desabantaila.

• Abantailak



Aukeratu 3 abantaila zure arketipotik.

• Sarea

Aurkeztu zure burua izen, itxura eta nortasunari dagokionez. Hartu zure banda, idatzi beste pertsonaien izenak. Eman itzuli bat mahaiaren inguruan zuen arteko harremanak erabakitzeko. Pertsonaiaren bat aurretik ezagutzen bazenuen aukeratu zure arketipoaren aukeren artean bion arteko harremana erabakitzeko.

Erabaki beste hiru Harreman esanguratsu: bat neutrala (0), bat esanguratsua (+1), bat funtsezkoa (+2).

**Zauriak**

Zauri larriak (-1)	Egonkortuta
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Zauri kritikoa (-1)	Egonkortuta
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

**Oreka**

<input type="checkbox"/> Bare	
<input type="checkbox"/> Deseroso	Estres ertaina
<input type="checkbox"/> Nahastuta	-1 desabantalei
<input type="checkbox"/> Dardarka	Estres altua
<input type="checkbox"/> Larri	-1 Egoerari eutsi
<input type="checkbox"/> Neuroiko	-2 desabantalei
<input type="checkbox"/> Erpai	Estres kritikoa
<input type="checkbox"/> Irrazional	-2 Egoerari eutsi
<input type="checkbox"/> Asaldatuta	-3 desabantalei
<input type="checkbox"/>	+1 Ilusioaz haratago ikusi
<input type="checkbox"/> Hautsita	Gidariaren ekintza

**Aurrerapena**

Aukeratu bat:

- Atributu aktibo bati +1 (gehienez +3)
- Atributu pasibo bati +1 (gehienez +3)
- Edozein atributuri +1 (gehienez +4).
- Aukeratu abantaila bat zure arketipotik

Bost aurrerapenen ondoren aukera ditzakezu:

- Eozein atributuri +1 (gehienez +4).
- Aukeratu abantaila bat edozein arketipotatik

Amaitu zure pertsonaiaren arkoa nahi bezala eta hasi pertsonaia jakitun berri bat, 2 aurrerapenekin.

Aldatu zure arketipoa, 2 abantaila gorde.

10 aurrerapenen ondoren aukera dezakezu:

- Zure pertsonaia Argiztatu arketipo bateta aurreratu,

**Gako dramatikoak**

**Ekipoa**



ETORKIZUNA  
IDAZTEN

**Armak**

**Armarik gabe**

Distantzia: besoa

Erasoak:

- **Biolentzia [1]**
- **Harrapatu [0]** arerioa harrapatuta daukazu askatzen denera arte
- **Lekuz aldatu [0]** distantzia jami zu eta arerioaren artean: jaurlaketa, bultzakada, saihestea...
- **Armagabetu [0]** arerioari objektu bat kendu eskuetatik
- **Indar gehiegizkoa [2]** arerioa hiltzera bideratu oso-osorik

## Zabandu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)